

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**MIRAKRUZ 10****Egilea eta data: Francisco Urcola; 1914****Deskribapena**

Mehelinen arteko eraikina, behe oina, jatorrizko bost goi oin (azkena atzeraemana) eta beheko oinarekiko 1947ko jasodura atzeraeman bat dituena. Harlanduzko fatxada, ezkerraldeko baoaren aurrean hormigoizko begiratokia duena. Bao hirukoitza du jatorriz behe oinean, 1926an eraldatua. Kalitateko eta erliebeko kareharrizko estaldura behe oineko fatxada osoan. Proiektu komuna Iparragirre 3 eta 5, Miracruz 10A, 10B eta 10C eta Iztueta 3, 5, 7 eta 9 zenbakiekin.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2. Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak.

B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotutakoak, behe oineko baoen konfigurazio bateratuarekin lotutakoak direnak barne.